

- 54. artikulua.– Diagnostiko-ebaluazioak.
- 55. artikulua.– Ebaluazio-prozesua ikuskatzea.
- 56. artikulua.– Sistema ebaluatzea eta esku-hartzeko proposamenak aurkeztea ikastetxeetan hobekuntzak egiteko.
- 57. artikulua.– Hezkuntza-ebaluazioaren eta -ikerkuntzaren lehentasun estrategikoak.

## VIII. KAPITULUA

### HEZKUNTZA-SISTEMAREN EBALUAZIOA ETA IKERKUNTZA

#### 54. artikulua.– Diagnostiko-ebaluazioak.

1.– Diagnostiko-ebaluazioak hezkuntza-eskumenak dituen sailaren eta ikastetxeen erantzukizun partekatua dira, eta hobetzeko aukera gisa eta ikastetxeentzako eta, oro har, euskal hezkuntza-sistema osoarentzako erronka gisa hartu behar dira.

Diagnostiko-ebaluazioa osatzen duten proben helburua izango da ikasleek oinarrizko konpetentzietan zer maila lortu duten egiaztatzea. Lortutako konpetentzia-mailan faktore indibidualak eta faktore sozioekonomiko, kultural eta linguistikoak hartuko dira kontuan.

Kanpoko nahiz barruko ebaluazioa baliaagarriak izango dira oinarrizko zehar-konpetentziak eta diziplinen barrukoak ebaluatzeko, bai eta ondorioak ateratzeko ere, hezkuntza-sistema hobetzeari begira.

Diagnostiko-ebaluazioak osatzen dituzten probak Euskal Autonomia Erkidegoan funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxe guztiek egingo dituzte.

2.– Hezkuntza-eskumenak dituen sailak ebaluazio-diagnostiko bat egingo du, Lehen Hezkuntzako hirugarren eta seigarren maila amaitzean. Ebaluazio horiek ez dute eragin akademikorik izango; ikastetxeentzat lagungarria eta orientagarria izango da; familientzat eta hezkuntza-komunitate osoarentzat, informatiboa.

3.– Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako ebaluazioa barrurako izango da, eta ikastetxeek berek egingo dute, hezkuntza-eskumenak dituen sailak ikastetxeen esku jartzen dituen irizpide eta ereduak kontuan izanda. Ebaluazio horren bidez, egiaztatuko da, gutxienez, zenbateraino menderatzen dituzten konpetentziak, hizkuntza-komunikazioan eta literaturan (euskara, gaztelania eta ingelesean) matematikan eta zientzia arloan. Emaitzak banakako txostenetan aurkeztuko

zaizkie familiei. Hezkuntza-eskumenak dituen sailak ebaluazio hori osatzeko kanpo-ebaluazio bat egin ahal izango du, sistemaren lagin gisa (hezkuntza-ereduak, ikastetxeen titulartasuna, adierale sozioekonomikoak eta kulturalak ebaluatzeko).

4.– Hirugarren mailako ebaluazioa txarra balitz, irakasleek ohiko edo ezohiko neurririk egokienak hartu behar dituzte. Zailtasunak gainditzeko indartze-planak eta banakoen edo taldearen emaitzak hobetzeko planak izango dira, familien laguntzarekin eta hezkuntza-babeseko baliabideen bitartez. Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako diagnostiko-ebaluazioaren ondorio gisa ezartzen diren indartzeko eta hobetzeko planak laugarren mailan zehar egingo dira.

5.– Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ebaluazioa kanpo-ebaluazioa izango da, eta sistemari, ikastetxeari, taldeari eta ikasleei buruzko informazioa emango du, gutxienez hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako oinarrizko kompetentziak (euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez), matematikakoak eta zientzia arlokoak neurtuko dituena. Ahozko adierazpenaren ebaluazioa ere sartuko da informazio horren barruan.

6.– Txosten batean agertuko da ikasle bakoitzaren Lehen Hezkuntzaren amaierako emaitza, gurasoei edo legezko tutoreei emango zaie, eta orientagarria izango da ikasleek Lehen Hezkuntzako seigarren maila egin duten ikastetxeentzat eta hurrengo maila egiten duten ikastetxeentzat.

7.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako diagnostiko-ebaluazioak zehazten diren oinarrizko kompetentzietan sistemak, ikastetxeak, taldeak eta ikasleak lortutakoari buruzko informazioa bilduko du. Ebaluazio horren emaitza lortutako emaitza guztiak jasoko dituen txosten batean jasoko da.

8.– Ikastetxeek eta Hezkuntza Administrazioak aintzat hartuko dute ebaluazio horietako informazioa, besteak beste, ikasleen arreta hobetzeko neurriak eta programak antolatzeke, eta oinarrizko kompetentziak menderatzen direla bermatzeko. Halaber, emaitza horiek, irakaskuntza-prozesuaren eta irakasle-lanaren ebaluazioarekin batera, aukera emango dute aurreko ikasturteetako esku-hartzeak aztertzeke, baloratzeko eta, hala komeni bada, birbideratzeko.

9.– Hezkuntza-eskumenak dituen sailak indartze- eta hobetze-planak ezarri ahal ditu finkatutako balioetara heltzen ez diren ikastetxe publikoetan.

10.– Ebaluazioen emaitza orokorrak jakitera emango dira ikastetxeak sailkatzeko identifikazio-daturik eta datu pertsonalik eman gabe, kontuan hartu ondoren ikastetxeen faktore sozioekonomikoak eta soziokulturalak.

11.– Datu pertsonalen babesari buruzko legeak errespetatuz erabiliko da era horretan lortutako informazioa. Taldeen, arloen eta ikastetxeen estatistikak egiteko eta aurreko lerrokadan adierazitako helburuetarako erabiliko da informazioa, hezkuntza-eskumenak dituen sailak ezarritakoaren arabera. Ebaluazio horiek ezin dira erabili ikastetxeen sailkapenak egiteko.

12.– Hezkuntza-eskumenak dituen sailak arautuko du diagnostiko-ebaluazioak antolatzeke prozedura. Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Euskal Erakundeak – ereduak eta laguntzak eskainiko dizkie ikastetxeei, den-denek modu egokian egin ahal izan ditzaten ebaluazioak.

13.– Neurririk egokienak ezarriko dira, ebaluazio horiek laguntza berezia behar duten ikasleen premietara egokitu daitezen.

#### **55. artikulua.– Ebaluazio-prozesua ikuskatzea.**

1.– Hezkuntzako Ikuskaritzaren ardura da ebaluazio-prozesuaren nondik norakoak ikuskatzea hala ikasleei nola irakaskuntzari dagokienez. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren

apirilaren 12ko 7/2007 Legean ezarritakoaren arabera, emaitzak hobetzen laguntzeko neurrien gainean aholkuak emateko balio behar du ikastetxe publikoetako irakasleen lana ebaluatzeak.

2.– Ikuskariak, ikastetxeak bisitatzean eta banakako ebaluazioen emaitzak ezagututa, zuzendaritza-taldearekin bilduko dira emaitzak aztertzeko eta baloratzeko.

56. artikulua.– Sistema ebaluatzea eta esku-hartzeko proposamenak aurkeztea ikastetxeetan hobekuntzak egiteko.

1.– Hezkuntza-sistema ebaluatzea ezinbestekoa da, emaitzak sendotzeko eta hezkuntza-erronka berriak ezartzeko hobekuntza-neurriak ezarri aurretik.

2.– Hezkuntza-sistema ebaluatuz lortzen da:

a) Gardentasuna eta parte-hartze demokratikoa hezkuntzaren kudeaketan.

b) Hezkuntza-sistemari buruzko erabakiak hartzeko datuak eskuratzea.

c) Hezkuntza-sistema propioari buruzko eta beste hezkuntza-sistema batzuei buruzko informazioa eskuratzea, emaitzak hobetzeko.

3.– Kanpoko nahiz barruko ebaluazioen emaitzak ikusita, ikastetxeek esku hartzeko eta hobetzeko proposamenak hautatu eta, besteak beste, ikasleen emaitzak hobetzeko ekintzak lehenetsiko dituzte. Hobetzeko ekintzak edo esku hartzeko proposamen horiek kontuan hartuko dituzte hezkuntza-ikerketetan detektatutako jardunbide egokiak, eta harremana izango dute ikastetxeko bizitzaren arlo desberdinekin, batez ondoren azaltzen direnekin:

a) Curriculuma eta metodologia (irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua, ikasgelako irakasle-lana, baliabide didaktikoak eta teknikoak, eta ebaluazio-tresnak eta -irizpideak).

b) Antolaketa eta funtzionamendua (irakasleen koordinazioa, taldekatzeak, ordutegiak eta funtzionamendu-arauak).

c) Komunitatea (ikastetxeko harremanak eta bizikidetzak, eta inguruarekiko nahiz familiekiko harremanak).

d) Garapen profesionala edo prestakuntza (irakasleen prestakuntza- eta lanbide-premiak).

#### 57. artikulua.– Hezkuntza-ebaluazioaren eta -ikerketaren lehentasun estrategikoak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemak gizarte-, ekonomia- eta hezkuntza-ezau-garri bereziak dituenez, ezinbestekoa da berariazko ebaluazio- eta ikerketza-prozesu batzuk bultzatzea; esaterako, prozesu elebidunen eta eleaniztunen azterketa, kontuan hartuz curriculumezko hizkuntza bakoitzaren egoera, edo bakearekin eta bizikidetzarekin zerikusia duten programa estrategikoen sustapena.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemak honako lehentasun hauek ditu hezkuntza-sistemaren eta -ikerketaren esparruan:

a) Konpetentzien arabeko curriculuma garatzeko onenak diren lan-metodologiak ikertzea.

b) Oinarrizko konpetentzia guztiak ebaluatzeko prozedurak eta tresnak osatzea, hala zeharkakoak nola diziplinen barrukoak.

c) Oro har, ebaluazioaren kultura eta autoebaluazioa sustatzea hezkuntza-sistemako ikastetxe, zerbitzu, programa eta jardueretan.

- d) Hobetzeko proposamenak lehenestea.
- e) Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemaren ebaluazio- eta ikerkuntza-adierazleak, -irizpideak eta -metodoak homologatzea erkidegoko, estatuko eta atzerriko erakundeek erabiltzen dituztenekin.
- f) Ebaluazio eta ikerkuntza propioak diseinatzea eta gauzatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemaren helburu bereizgarrien arabera.
- g) Estatuko ebaluazioetan parte-hartzea, arautegiaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemaren helburuekin bat datozen egokitzapenak eginda.
- h) Hezkuntza-sistema hobetzeko ebaluazioari eta ikerkuntzari laguntzen dioten bideak jartzea, elkarlana sustatuz ikastetxeen, Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Euskal Erakundearen eta unibertsitateko hezkuntza-departamentuen artean.
- i) Hezkuntza-adierazleen sistema hobetzea, batez ere, 2020rako helburu europarrei dagokiez (eskola uztea, haur-hezkuntza, ELGAren PISA proben bidez neurtutako Bigarren Hezkuntzako errendimendua, goi-mailako tituludunak edo bizitza osoko prestakuntza).